Argazkia: **Iñigo Larreina** (UGS Visión)

NEREA RUIZ: Gelditzeko asmorik ez duen futbolaria

Oso gaztea da Nerea Ruiz futbol jokalari laudioarra, baina ibilbide oparoa egin du dagoeneko. CD Laudion hasi zen jokatzen, baina orain Athletic-en eta Euskal Selekzioan dabil. Espainiako Selekzioarekin aritu da Sub-17 kategorian, Europar Txapelketa prestatzen 12. or.

Kirola

Txarlazok mende erdi bete duela ospatzeko, mendi jardunaldiak 13. or.

Orozko-Urduña

Eskualdeko ondarea, Europako Jardunaldietan presente 11. or.

Iritziak:

TXEMA URKIJO 2. or.
IRATI MENDIGUREN 6. or.
TXANI RODRIGUEZ 10. or.
GAIZKA BARAÑANO 11. or.
EGOITZ BERNAOLA 13. or.
AINHOA COMAS 16.or

aiaraldea

Aiaraldeko hamabostekaria
2014 /// Urriak 9 ///
OSTEGUNA
20. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.com

Aiaraldea Nerbioiko Parke Lineala: ondareaz eta naturaz gozatzeko urrats berriak

_elkarrizketa:

ZUTOIA ALARCIA > "Antzeztearen pozoia ia-ia sehaskatik daramadala esango nuke" 10.or

"Bizi naizen lekuan antzerki eskola bat jartzeko neukan nahitik sortu zen Adam Dram proiektua"

IKASTETXEETAKO JANTOKI ZERBITZUA: Eskualdeko ia 3000 ikaslek jango dute aurten eskoletako jantokietan. *KUDEAKETA EREDU EZBERDINAK* 6 or.

elkarlan
asesores
www.elkarlan.eu

Foru Kalea, 2 · **AMURRIO**
Tel. 945 39 33 51

Lamuza, 12 · **LAUDIO**
Tel. 94 672 74 28

Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat

www.elkarseguro.com

_iritzia

Txema
Urkijo
ABOKATUA

_Leihotik

Gure jai egutegia

San Rokeko festak amaituta, jai horren inguruan sortzen diren eztabaidak duela 35 urte sortzen ziren berak direla ikusten dut. Dudarik gabe, garaiak aldatu egin dira. Jai-eredua zalantzan dago. Geroz eta zailagoa da zentzua ematea aspaldiko garaietan auzokideen eguneroko bizitzan benetako salbuespenezko gertakari bat zen horri. Gaur egun aisiak gure bizitza zeharo zipriztintzen du eta parranda askoz maiztasun gehiagorekin dugu eskura. Zaindariaren jaien behin-behinekotasunaren zentzua urtu egin da.

Horrekin batera, gure egutegi bereziak arazoak sortzen ditu antolakuntzan zein jaien kontzeptuaren ulerkeran. Luzeegia lehen, zatitua orain... eztabaida berdina da urtero. Zoritxarrez, eztabaida nahiko garratza izan ohi da hori, aurreiritzi askorekin eta justifikazio eskaseko immobilismo batzuetatik planteatzen dena. Antagonismo ideologikoek pisu gehiegi hartzen dute..

Badirudi orain badaudela gure jai egutegiaren inguruko eztabaida sosegatu bat eskatzen duten ahotsak. Dauden aukeren abantaila eta desabantailak erakutsiko dituen eztabaida bat. Ahalik eta kontsentsurik handiena bilatuko duen eztabaida bat, ahobatezko akordio bat ezinezkoa izango dela jakitun. Konfrontaziotik baino, kooperazio eta elkarlanetik abiatutako eztabaida bat, zeinetan ez den inoren aurka joko. Eztabaida bat zeinetan XXI. mendeko festa batek dituen beharrizanak Laudiokoak izateagatik berezi eta paregabeak diren jaien esentziarekin nahastuko diren. Ondo aterako al da!

_GALDERA

Zer iritzi duzu Nerbioiko Parke Linealaren inguruan? Erabiltzen duzu?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.com helbidera idatzita.

BIDEOA WEB-GUNEAN

Arantza
Idazkaria

Ondo dago. Geroz eta jende gehiago dabil parkean, nahiz eta udaren eta udazkenaren artean jende kopurua aldatu egiten den. Oso ondo dago mugitzeko ohitura daukan jendearentzat. Dena den, bizikletetan doazenek askotan oztopatu egiten dute oinezkoen ibilbidea.

Bea
Irakaslea

Parkea oso ondo dago, nik batzuetan erabiltzen dut eta asko gustatzen zait. Dena dela, bizikletaz joaten zarenean batzuetan oinez doazenak kexatu egiten dira. Baina paseoa luzatzeak harrera ona izan duelakoan nago. Adin guztietako pertsonak ikusi daitezke bidean zehar, gazteak baita.

Gotzon
Garabi-operatzailea

Oso ondo dago Parke Lineala. Sarritan erabiltzen dut, bizikletarekin, astean bi edo hiru alditan. Gaur Amurriora joan naiz, Aspaltzara igo naiz gero, Aretara joan eta orain Luiaondora noa. Ibilbide honek niri segurtasun handia eskaintzen dit, trafikoak beldur asko ematen didalako.

Isabel
Langilea

Parkea oso ondo dago, ibiltzeko eta mingaina astintzeko balio duelako. Mota eta adin askotariko pertsonak dabiltza, eta une oro gainera; uda partean gaueko hamabietan bazatoz jendea ikusiko duzu ibiltzen. Dena dela, errekan sasi asko dago, apur bat garbiago egon beharko litzateke.

Marijose
Medikua

Oso gogoko dut Parke Linealaren ibilbidea. Ia-ia egunero erabiltzen dut. Beti dago beteta, euria egiten duenean ere bai. Zerbait hobetzekotan paisaia hobetuko genuke; ibaia oso zikin dago eta sasi asko dauzka. Baina ibilbide ona da, oinez zein bizikletaz egiteko.

_gutunak

LOMCE zirimiria galarazi dezagun gure hezkuntza eraikiz

Aitor Fernandez de Pinedo (Gure Hezkuntza plataforma)

Zirimiriaren modura ari da LOMCE legea hezkuntza sistema zipriztintzen, hori da Madrileko eta Gasteizko gobernuek aplikaziorako adostu duten estrategia. Aplikazioa ez da aldaketa bortitzez jositako zaparrada izango, poliki-poliki bustiko gaituen zirimiria baizik.

Lehen Hezkuntzako ikasleek egunerokoan aldaketarik ez dutela nabarituko esaten duten bitartean, gure hezkuntza sistema propioaren eraikuntza erabat hipotekatuko duten erabakiak adostu dituzte; A, B eta D ereduak iraunarazi dituzte, adibidez, hala murgiltze ereduen garapenerako bidea itxiz.

Aiaraldean Gure Hezkuntza plataforman LOMCE ez aplikatzeko indarrak biltzen ari gara gelaz gela eta ikastetxez ikastetxe. Datozen hilabeteetan eskualdeko udal guztiei "LOMCErik gabeko herriak" ekimenarekin bat egin dezaten proposatzen duen mozioa luzatuko diegu, guztion artean gure hezkuntza sistema propioa eraikitzen lagundu behar digun estalkia osa dezagun.

Urriaren 11n hitzordua dugu hegoaldeko hiriburuetan LOMCEren aurrean Euskal Herrian gure hezkuntza eraikitzeko beharra kalejiratan aldarrika dezagun, Gasteizen 18:00etan Andra Mari Zuriaren plazatik eta Bilbon 17:30ean Jesusen Bihotzetik.

Malmasinpetik, Untzuetapera

Andoni Gorostiaga

Untzuetan zegoen gaztelua Nafarroako Erresumarena zela ezagutarazteko ekitaldiak antolatu ziren apirilean. Ekimenean "historia modu txapuzero batean manipulatzeko beharra" (sic) ikusi duenik bada, Aiaraldeak egindako bideoa kari. Bideoa berrikusita bestelako iritzia dut.

Bizitza Malmasin eta Untzuetapean pasatu dut. Historia ofizialak ezkutatu digu bi tontorretan nafar gazteluak zeudela. Lekuz kanpokoa da jakobinoekin konparatzea; frantses eskolaren nos ancêtres les gaulois (gure arbaso galiarrak) euskaldunei "irakastea" gezur galanta da, aldiz Malmasinen eta Untzuetan Nafarroako Erresumako gazteluak egon ziren esatea zuzen eta zientifikoa da. Ez ditzagun planoak nahas; etorkizuna historian oinarritzearekin ez nator bat. Egungo herritarrek erabaki behar dugu geroa. Ekitaldian, ordea, ez dut historiakeria hori ikusi, zilegi den "geure oroimen historikoa berreskuratzeko" ahalegina baino; neure bizitzaren ardatza diren lekuen pertzepzioa aberastu didatelakoan nago.

Eta orain goazen XXI. mendeko euskal herritarrak geure geroaren jabe izan gaitezen borrokatzera.

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Erredakzioa:
Aiaraldea Komunikazio Leihoko Erredakzio Saila
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.com
agenda@aiaraldea.com
agurrak@aiaraldea.com
harremanak@aiaraldea.com
Publizitatea:
publizitatea@aiaraldea.com
Tlfnoa: 669 83 57 87
Web-gunea:
www.aiaraldea.com
Helbideak:
Nerbio Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400 //
Aiara Etorbidea 9, Amurrio, Araba, 01470.
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54
Tel: 945 06 66 84
Tel: 688 848 152

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau ekonomikoki laguntzen duten enpresak:

CuadraBus
CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g – 01468 Amurrio, Araba.
Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

Graf!k
Graf!k Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzar, z/g · 01400 Laudio (Araba) Tel.: 946 721 200
Fax: 946 720 092 infor@jez.es

ausolan
Auzolagun
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

_herriz herri

Aiaraldea

Bizkaiko ondarea ezagutaraztea da jardunaldien xedea. Argazkia: Iban Pagalday

Eskualdeko ondarea ezagutzeko aukera Europako Jardunaldietan

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Urtero legez, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondarearen Europako Jardunaldien baitan izango dira Orozko eta Urduña. Orotara, 150 jarduera inguru izango dira urrian Bizkaian zehar, udalerri, museo, eta elkarteekin elkarlanean.

Jardunaldien helburua da Bizkaiak duen ondarea ezagutaraztea eta horretarako historian murgiltzea proposatzen dute. Eskualdeari dagokionez Orozkon hiru ekimen antolatu dira, bisita gidatua eta mendi-ibilbidea uztarturik, Orozkoko udalak eta Aunia elkarteak prestatutako ekimenetan.

Urriaren 5ean, Supelegor kobara txangoa egin zuten. Goizeko 9:30ean abiatu zen ibilbidea Orozkoko museotik, jarduerak bost ordu inguru iraun zuelarik. Urriaren 12an, artzainen eta ikazkinen txabolak ezagutzeko txangoa izango da; euren bizimodua hobeto ezagutzeko aukera. 9:30ean abiatuko dira Orozkoko museotik eta goiz osoko ibilbidea aurreikusi dute antolatzaileek. Juanjo Hidalgok azalduko ditu txabola barruko nondik norakoak: neurriak, ohearen lekua, sutondoarena eta jakitokia, baita eraikuntza-sistema eta materialak ere. Horietatik hurbil, basoko ikazkinen eta egurketarien txabolak aurkituko dituzte ibiltariek.

Urriaren 19an, igandean, Jentilzulo kobatxora txangoa izango da Juanjo Hidalgok eta Felix Mugurutzak gidatuta, haur eta nagusientzako irteera aproposa izango delarik. Kondairek diote jentilak kobaraino jaisten zirela, gogokoen zuten balkoitik, hots, Untzueta gaztelutik, koba beren bizilekua zelako. Inguruetako herritarrek gertakari ugari partekatu zituzten zulo haren biztanleekin. Goizeko hamar eta erdietan abiatuko da ibilbidea Orozkoko museotik. Jarduerak hiru ordu inguru iraungo ditu eta esku argia eramatea gomendatu dute.

Bisita gidatuak

Urriaren 25 eta 26an, hiriko ondarea ezagutzeko bisita gidatuak izango dira, Urduñako Turismo Bulegoak antolatuta.

Gauzak horrela, Jesús Muñiz Petralandaren eskutik hirigune historikoko jauregien historia ezagutzeko parada egongo da, baita ere Antigua pasealekuan dauden indianoen etxeen inguruko ere. Goizeko hamaiketan abiatuko dira bisita gidatuak turismo bulegotik.

Ikuskariak egon dira JEZ eta Amurrio Ferrocarriles-en, ez polizia

ERREDAKZIOA I

Asteartean JEZ Sistema Ferroviarios eta Amurrio Ferrocarriles enpresek Lehiaren Defentsako Batzorde Nazionalaren teknikarien bisita izan zuten eta ez poliziarena. Teknirakiek ohikoa den ikuskapena egin dute.

Aiaraldean dauden enpresa horietan ez ezik, Asturiasen dauden bi enpresetan ere egon dira ikuskatzaileak. Batzordeak ikerketa abiatu eta dokumentazio ugari eraman du. Ikerketaren helburua da erabakitzea lau enpresen artean sortutako aldi-baterako enpresa elkartea legea betetzen ari den.

JEZ-en eta Amurrio Ferrocarriles-en egon dira ikuskariak. Argazkia: aiaraldea.com

Izan ere, lau enpresek aldi-baterako enpresa elkartea egin dute zenbait lan gauzatzeko. Hilabete batzuen buruan, dokumentazioa analizatu eta gero, teknikariek iragarriko dute espedientea irekiko duten edo bertan behera geratuko den ikerketa.

Langileak lasaitzeko asmoz JEZ enpresako zuzendaritzak jakinarazi die ikuskapena errutinazko jarduera dela.

Horrekin enpresak gezurtatu nahi du hedabide batek jasotako informazioa, egunkari batek argitaratu baitu Aiaraldeko enpresetan polizia egon dela, ADIF-en egondako ustezko ustelkeria kasuekin lotuz.

Amurrio

Lau bide osasungarri eraikitzeko asmoa du Udalak

Herritarrek erabiltzeko lau bide seinalez hornituko dituzte. Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA I Jaione Pagazaurtundua Arbide

Amurrioko udalaren iritziz ariketa fisikoa bultzatzea garrantzitsua da bizimodu osasungarria eta gaixotasunen prebentzioa ziurtatzeko.

Legealdiz legealdi Amurrioko udalak hainbat ekintza egin ditu helburu horrekin, hala nola, Naturbideak, herriko zenbait tokitan hirugarren adineko jendeari zuzendutako gimnasia makinak eta abar. Baliabide horiekin lotuta baina pauso bat harago, 4 hiri zirkuitu prestatu nahi ditu. Azaldu dutenez, ibilbide horiek era normalean erabili ohi dituzte herritarrek, heltzea errazak izatea dute helburu eta zirkularrak izango dira.

Eskatutako diru-laguntzei esker abenduaren 31 baino lehenago zirkuituak balizatzea espero dute, seinaleztatzearekin eta zirkuitu bakoitzaren fitxa bat prestatzearekin batera.

Osasun sailarekin etengabeko harremana dauka udalak Amurrioko anbulatorioko medikuen bitartez. Bide osasungarri horien erabiltzaileak hirugarren adineko jendea ez ezik kirola egitera irten ohi diren herritarrak ere badira.

Zirkuituetako batek 3.8 km dauzka eta desnibel gutxi, beraz, zirkuitu erraza da. Bigarrena luzeagoa da, 4.5 km ditu gutxi gorabehera, eta herrian zehar doa. Beste bat kiroldegitik abiatzen da. 3.7 kilometroko distantzia du eta desnibela 75 metrokoa da.

Laugarrena ere kiroldegitik abiatzen da. Azken horren zati batek aurreko ibilbidearekin bat egiten du, beraz. 6.6 km-ko luzera du, eta 88 metrokoa da desnibela. Horietako bat argiztatuko dute erabilera errazteko. Amurrioko anbulatorioko arduradunekin koordinazioa bilatu nahi du udalak tokiko ekintza planean, Agenda 21en barruan, kirolaren sustapena aipatzen baita osasun iturri gisa.

Urte amaieran erabakiko dute non ireki daitekeen berriz gasolindegia

ERREDAKZIOA I

Amurrioko erdigunean dagoen gasolindegiaren baimena iraungi da. Ondorioz, lursaila hustu beharko du gasolindegia kudeatzen duen enpresak, lur publiko horri kutsadura kentzeko eta bere kalitatea bermatzeko.

Udalak ez du nahi gasolindegiak sortzen dituen lanpostuak eta ematen duen zerbitzua galtzea. Horregatik Arabako Foru Aldundiarekin eta enpresarekin negoziatu nahi du kokapen berria.

Akordioa urtea bukatu baino lehen gauzatu beharko da, bestela udalak gasolindegiaren kudeatzaileei eskatuko die egungo kokapena uzteko.

2009an baimena bukatu zen , baina irekita jarraitu du gasolindegiak. Hori dela eta 114.244 euro likidatu dizkio enpresak udalari.

_herriz herri

Laudio

XVI. mendeko baserria egoera tamalgarrian dago. Argazkia: Jon Catalan

Etxebarri baserriaren berritze proiekturako, 57.000 euro

ERREDAKZIOA IAndoni Larrea

Azken boladan, Laudioko Udalak Arabako Foru Aldundiko Herrilan Sailarekin hainbat elkarrizketa izan ditu, Udalaren esku dagoen Etxebarri baserriaren egoerari irteera emateko asmoz. Elkarrizketa horietako azkena, Udalaren ordezkarien eta Aldundiaren teknikarien artean, Goikoplazan kokaturik dagoen baserrian egin zen. Bilera hartan, Aldundiko adituek konponketa zientifikoan oinarritutako proiektua prestatzea aholkatu zioten Udalari.

Konponketa zientifikoa prozesu eraikitzailea da, non kontserbazioak eta eraikinaren elementu tipologiko, formal eta estrukturalen errespetuak lehentasuna izan behar duen. Proiektu horren bitartez, eraikina salbatzeko beharrezkoak diren konpontze lanetarako diru-laguntzak jaso beharko lituzke udalak Aldundi eta Eusko Jaurlaritzatik. Proiektua lantzeko 57.000 € inbertituko dira.

XVI. mendeko ondare

2009an eraikinean izan zen sutearen ondorioz, adituen arreta deitu zuen margo polikromatu batzuk agertu ziren baserrian.

Foru Aldundiko eta EHUko aditu talde batek polikromia horiek ikertu zituen. Laudioko baserrian egindako azterketek erlazionatu dituzte Etxebarriko margoak Aginagako elizaren alboko kapera bateko margoekin.

Aginagako elizaz gain, azkenaldiko ikerketa batek Izoriako Ibarra baserrian agertutako margoekin ere lotu ditu. Horren guztiaren bitartez, margo horiek XVI. mendean eginak izan zirela ondorioztatu daiteke. Baserri hau, Eusko Jaurlariltzaren Ondare Legearen bitartez babestuta dago.

Baserriak duen garrantzi artistikoagatik, eta egun daukan egoerak bultzatuta, Udalak proiektua lehenbailehen abiaraztea komeni dela uste du. Proiektua prestatzeko dirua aurreratzeko asmoa du. Hori egin ondoren, diru-laguntza eskatu egingo zaio Eusko Jaurlaritzari proiektua gauzatzeko.

Egitasmoa Aldundiko zein Jaurlaritzako ondare teknikariei egitea egokituko zaie. Bertan konpontze lanen kostuak eta epeak zehaztu egingo dira. Behin proiektua osatuta, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari konpontze lanekin hastea eskatuko die udalak berak. Baserriaren aldeko zenbait ekimen eman dira herrian. 2010. urtean herritar talde batek abiatu zuen sinadura bilketa erakundeek Etxebarri baserriaren iraupena bermatu zezaten. Zentzu horretan, antzeko eskaera zabaldu du San Roke Kofradiak bere aldizkariaren azkenengo alean.

Artziniega

567.000 euro inbertituko ditu Udalak hamairu obretan

ERREDAKZIOA I Unai Gotxi

Espainiako Gobernuak soberakinak zeuzkaten udalei dirua gastatzeko baimena eman die. Artziniegakoak 680.350 euro baino gehiago dauzka eta 567.000 euro erabiliko ditu 13 obratan.

Udalak dagoeneko esleitu ditu udaletxeko igogailua -113.000 euro-, orain berriztatzen ari diren Erretes Tuterako eskola zaharrak -12.249,99 euro jarriko ditu tokiko erakundeak- eta Soxogutiko La Cruz baserriaren bidea -40.256,71 euro- ri esker, Eusko Jaurlaritzak %80 ordainduko duelarik-.

Diru kopuru garrantzitsuena udal gobernuak proposatutako udaletxetik kiroldegira doan errepidean hobekuntzak eta espaloiak egitera bideratuko da. Arabako Foru Aldundiari eskatutako diru-laguntza izango da obraren gehiengoa ordainduko duena. Hala ere, soberakinaren 300.000 euro horretara bideratuko dira. Urte amaierarako obren esleipena egin nahi zuten baina proiektua egiteke dago. Proiektua onartu ostean, desjabetzeak egin behar dira lanekin hasteko. Obrak 2015ean amaitzea espero dute.

Barratxiko zubi zaharra berriztatzea eta bertatik igaroko den bidearen azterketa ere egingo da. Horrekin batera, La Dehesa bidearen mugaketa egingo da, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, La Cruz de Barrueloko baserrietara doan bidea berrituko da, Jauregiaren aurreko bidea moldatzearekin batera.

Bestalde, futbol zelaiaren inguruan korrika egiteko pista, Benta eta Gordelizeko ur presioa igotzea eta Geltoki plazako auzotarrek eskatzen zuten gunearen argiztatze lanak ere gauzatuko dira.

Alvaro Barrios izango da Omniako alkategaia

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru.

Asteburuan erabaki du Omnia taldeak nor izango den udal hauteskundeetan bere zerrendaburua. Hautagaia Álvaro Barrios izango da. Talde independienteak Ikune plataforman parte hartzen du, eta are ekimen horretako sortzaileetako bat da. Podemos alderdiak plataforma hori babesteko asmoa azaldu du azkenaldian. Omniak herritarren partaidetzan oinarritzen du bere filosofia politikoa.

_Iruditan



Alberto Aceroko orubea parke bilakatzea da asmoa. Berdegunez inguratua egongo litzateke, eta erdian bankuak eta umeentzako jolasteko kolunpioak egotea da asmoa

Datozen egunetan bukatuko dituzte Laudioko Alberto Aceroko orubea garbitzeko lanak. 50.000 euro inbertituko ditu udalak orubea behin behineko aisialdi gune bilakatzeko. Argazkia: aiaraldea.com

_herriz herri

Urduña

Segurtasuna hobetzeko egingo dira aldaketak Argazkia: Aiaraldea.com

Hiriko sarbidean trafiko moldaketak egingo dituzte

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Ibilgailuetarako Urduñako sarrerak aldatu egingo dituzte. Helburua herritarren segurtasuna hobetzea da. Izan ere, gidari gehienek iparraldeko sarbidea erabiltzen dute hiria bertaratzeko. Horrek, Alde Zaharreko oinezkoen segurtasuna eta auzoaren egoera kaltetzea eragin du. Horregatik, proposatu dute Mikel Deuna auzoko bizilagunek bakarrik erabiltzea sarrera hori.

Planteatutako aldaketak Alde Zaharreko trafikoa erregulatzeko azterketarekin lotuta daude. Hala, Gasteizera doan errepidetik bideratuko da datorren urtetik aurrera Urduñarako sarbidea; zezen plazako biribilgunetik, hain zuzen ere.

Semaforoak kanpora

Bestalde, San Frantzisko, Zageras, Barria eta Kantarranas kaleek Gasteizko errepidearekin bat egiten duten gunean ere moldaketak egingo dira. Hau da, haur eskola, adinekoen egoitza eta herri ikastetxea elkartzen dituen bidegurutzean. Gaur egun, hiru semaforo daude, baina egingo diren obrekin desagertu egingo dira.

Espazio beharragatik, baina, bi eraikin bota beharko dituzte. Hala, Zageras kaleko errepidea noranzko batekoa izatetik bi norabidekoa izatera pasako da, oinezkoentzako espaloia handituz eta haur eskola ren pareko semaforoa kenduz. Aurreratu dutenez, espaloiak bi metro baino gehiagoko zabalera izango du.

La Posada ezizenez[1] ezagutzen den gunean, aldiz, biribilgune bat egokituko dute, oinezkoek lehentasuna izateko eta autoen abiadura murrizteko arekak[2] baliatuta. Horrek aukera emango du bidegurutze horretan dauden beste bi semaforoak kentzeko. Bestalde, Gernika eta San Frantzisko kaleak batzen diren eremuan dauden zebrabideak, aparkalekuak eta zabor ontziak lekuz aldatuko dituzte. Era honetan, Gernika, Otxomaio eta San Inazio kaleetako bizilagunek era seguru batean zeharkatu ahal izango dute bidea oinez.

Hiztegia: *Ezizenez, izenez /Areka[2]/, badena.*

Gune beltzak identifikatzeko segurtasun mapa

ERREDAKZIOA I

Urduñako hiritarrak seguru sentitzen ez diren guneak identifikatzeko segurtasun mapa egingo da. Urtearen amaierarako bukatuko dute puntu beltzen mapa. Azaldu dutenez, erabiliko duten metodologiak bi ardatz izango ditu: batetik, zinegotziek eta talde bultzatzaileak alor teknikoa landuko dute. Bestetik, eztabaida saio eta inkesten bidez, hiritarren parte-hartzea sustatuko da. Guztira, adin ezberdinetako Urduñako 50 emakume eta 20 gizonen parte-hartzea aurreikusi dute.

Anfibioentzako urmaela egiteko auzolana

ERREDAKZIOA I

Igelentzat putzu bat egingo dute auzolanean larunbat honetan La Paulen. Hitzordua 9:00etan jarri dute, La Paulen bertan. Azaldu dutenez, helburua ibaia biziberritzea da. Horregatik, baso igel jauzikaria ezagutzeko ibilbide laburra ere egingo dute.

Orozko

Nekazal taxia martxan jarriko du udalak

ERREDAKZIOA I
Aitor Aspuru Saez

Aste honetan abiatu du Udalak Orozkoko auzoak eta Zubiaur lotuko dituen nekazal taxia. Hiru hilabeteko proiektua egingo da proba gisa eta horren ostean aztertuko dituzte emaitzak.

Taxia auzo guztietara helduko da, Bizkaibus zerbitzua dutenetara izan ezik, kasu horietan garraio publikoa baitago dagoeneko.

Momentuz astearte, ostegun eta ostiraletan bakarrik egongo da nekazal taxia erabiltzeko aukera.

Zerbitzua eskatzeko udaletxera deitu beharko da aurreko egunean, goizeko 12:30ak baino lehen. Bidaien ordutegia mugatua izango da, Zubiaurrera irteerak 9:00etatik 11:00ak arte izango dira eta auzoetara itzulerak 12:00etatik 14:00ak arte.

Udalarentzat 3000 euroko gastua suposatuko du nekazal taxiaren egitasmo honek. Bezeroek aldiz prezio sinbolikoa ordainduko dute zerbitzua erabiltzeagatik; euro 1 bidaiari bakoitzeko, hain zuzen ere.

Egitasmoaren helburua zerbitzua jende nagusiak erabiltzea da, mugikortasuna bermatu eta independenteagoak bihurtzeko adineko jendea.

Arrankudiaga-Zollo

Herri-kontsultaren protokoloak zehaztu eta hainbat ekimen antolatu ditu ADOS plataformak

ERREDAKZIOA I

Arrankudiaga-Zollon azaroaren 2an egingo duten herri-kontsultaren harira aurrerapausoak eman dituzte. Prozesua arautuko dituzten protokoloak prest daude: prozedura orokorra, boto sekretua aurretik emateko aukera, segurtasuna, hauteskunde-mahaia eta ikuskatzaileentzako, hauteskunde-batzordearentzako eta behatzaileentzako funtzionamendua erabaki dute. "Hauteskunde-mahaiaren irekiera eta itxiera akta" eta "Hauteskunde-mahaiaren emaitzen akta" ere zehaztu dituzte.

Bestalde, antolatzaileak herriko talde gehienekin eta udalean ordezkariak dituzten alderdiekin elkartu dira eta mahaiburu eta mahaikide lanak beteko dituzten pertsonak aukeratu dituzte, pluraltasuna, adina eta sexua aintzat hartuta. Hori gutxi balitz, egitaraua prestatu dute: urriaren 10ean, zigilua eta sinadura jarriko diote boto aurreratuaren hautestontziari, urriaren 17an «Gazta zati bat» pelikula emango dute eta astebete geroago Jon Maia bertsolari eta zuzendariarekin solasaldia egingo dute. Urriaren 19an jaia ospatuko dute. Informazio kanpaina ere abiatuko dute.

Aiara

Etxaurren ikastolako eta Ibaguengo obrak

ERREDAKZIOA I
Izar Mendiguren Cosgaya.

Etxaurren ikastolako eta Menagaraiko "ur beltzak" kudeatzeko araztegi berri bat jarri dute. Menagaraiko Batzar Administratiboarekin elkarlanean egin da lana. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzen bidez, ikastolako ertzak hesituko dituzte, eta ikasgeletara sartzeko arrapala bat eraiki. Udalak, bere aldetik, heziguneko berdegunea konpontzea erabaki du, egoera kaskarrean zegoela iritzita. Ibaguengo kiroldegia egiteko obrek mugitutako lurrak ere egokituko dituzte, harriak kenduz eta belarra hazteko lurra jarriz.

_iruditan

Zuhatzako bideak konpontzeko auzolana egin zuten pasa den asteburuan. Izan ere, bazterretan belarra pilatu egiten da. Orain arte auzolanean iturria eta ingurueta-ko pinudiak atondu dituzte.

Argazkiak: Nagore Portillo, Mari Feli Beraza eta Xabi Iturrate

_jendartea

Aiaraldeko ia 3000 ikaslek jango dute aurten ikastetxeetako jantokietan

2965 ikaslek erabiliko dute aurten jantoki zerbitzua Aiaraldeko 17 ikastetxetan. Ikastetxe publikoetan Ausolan-Magui enpresa da otorduen kudeaketaz arduratzen dena. Gainontzekoetan, berriz, beste enpresa batzuk edo bertako sukaldariak arduratzen dira bazkariez.

ERREDAKZIOA I
Txabi Alvarado Bañares

Eskualdeko 17 ikastetxek dute jantoki zerbitzua. Argazkia: aiaraldea.com

Hasi da ikasturtea, eta kurtsoa hasi bezain pronto bi aukera dituzte eskualdeko milaka ikasleek: bazkaltzera etxera joatea edo ikastetxeko jantokian geratzea. Aurten ugariak dira bigarren aukera hautatu dutenak: ia 3000 erabiltzaile, eskualdeko 17 ikastetxetan banatuak.

Eskola publikoek Eusko Jaurlaritzak kontratatutako Ausolan-Magui enpresaren jantoki zerbitzua baliatzen dute. Hala, 1630 ikasleren bazkaria kudeatzen du enpresa horrek (jantokien erabiltzaileen gehiengoa).

Ausolan-Maguik, baina, ez du kudeaketa berbera egiten Aiaraldeko jantoki guztietan. Bi motatako zerbitzua eskaintzen du enpresak: "sukalde in situ"a eta "garraiatua". Lehenengo kasuan enpresak lehengaiak ematen dizkie ikastetxeei, eta zentroko sukaldariek prestatzen dute gero bazkaria. Bigarren kasuan, janaria Ausolan-Maguiren sukalde zentralean prestatzen da eta gero janari beroa kamioi berezietan garraiatzen da ikastetxeetara.

Eskualdeko 5 ikastetxek "in-situ" zerbitzua daukate (1040 ikasle guztira). Beste 7 eskolek, berriz, sistema "garraiatua" erabiltzen dute (590 erabiltzaile guztira).

Ausolan-Maguiren zerbitzua erabiltzen ez duten ikastetxeetan kudeaketa sistema anitz topatu daitezke. Kasu batzuetan beste enpresa batzuk dira jantoki zerbitzua eskaintzen dutenak. Gaska enpresak eskualdeko bi zentrotan eskaintzen du zerbitzua, *cathering* formatuan. Gure Etxea-k, berriz, Aiaraldeko ikastetxe bakarrean dabil otorduak kudeatzen.

Gainontzeko tokietan, berriz, sukaldari propioak dituzte. Aresketa Ikastolarena da kasu berezia: eskolako haur batzuen amek sortutako enpresa txiki batek prestatzen baititu bazkariak.

Dietak, denetarikoak

Eskualdeko ikastetxe guztietan eskaintzen dira alergiadunentzako, zeliakoentzako edo behar dietetiko bereziak dituztenentzako dietak. Barazkijaleentzako dieta ere ikastetxe gehienetan eskaintzen da, eta baita txerrikirik gabekoa ere.

Horretaz gain, Magui enpresatik azaldu dute "elikadura politika" izaten dutela oinarri menua diseinatzeko garaian, "kaloriak, karbohidratoak, gantzak eta proteinak izaten dira kontuan". Ildo berean, Maguitik adierazi dute euren web-gunean (www.ausolan.com) eskola bakoitzean eskaintzen den menua zehatz-mehatz ikusteko aukera dagoela.

Alergikoentzako, zeliakoentzako zein behar dietetiko bereziak dituztenentzako menu bereziak eskaintzen dituzte ikastetxe guztiek, eta gehienek barazkijaleentzako otorduak zein txerrikirik gabekoak ere.

Tokiko produktuen erabileran, aurrerapausoak

Alboko zelaietako baratzetan ekoizten diren produktuak jatea. Horretan datza "0 km" filosofia. Kilometro horretara iristeko, baina, oraindik pauso asko daude emateke Aiaraldean.

Hala eta guztiz ere, lehen pausoa emana dago, Urduñan. Tokiko ekoizleei deialdia luzatu die Udalak, produktuen loteak aurkezteko. Lote horiek baliatuta Nagusien Etxeko jantokiko menuak osatzea da asmoa. Udazken honetan ekingo diote asmo horri, eta etorkizunean tokiko produktuen erabilera beste hainbat lekutara zabaltzeko asmoa dute (hiriko ikastetxera barne).

"0 kilometro" filosofia jadanik erabiltzen duen leku bat topatzeko, baina, eskualdetik kanpora zuzendu behar da begirada. Larrabetzuko Ikastetxean, adibidez, inguruko larreetan ekoiztutako barazkiak prestatzen dituzte; eta, ikastetxetik adierazi dutenaren arabera, menua ez da beste kudeaketa eredu batzuen aldean garestitzen.

ZENBAKITAN:

17
Jantoki zerbitzua eskaintzen duten Aiaraldeko eskolen kopurua.

2965
Eskoletako jantoki zerbitzua erabiltzen duten Aiaraldeko ikasle kopurua.

%55
Aiaraldeko eskoletako jantokien erdia baino gehiago Eusko Jaurlaritzak kontratatutako Magi enpresak kudeatzen du.

Irati
Mendiguren Cosgaya
HEZITZAILEA

_Hankamotz

Bejondeigula!

Ondo gogoan dut paper hauek lehenbizikoz eskuartera iritsi zirenean sentitu genuen zirrara. Lehen labekada atera zenetik milaka ale banatu dira, eta txiri-txiri, ehundik gora lagunen izerdiari esker, eskualdea euskalduntzen ari gara.

Zorionak hamabostean behin egunkari multzoak hartu eta ikastetxeetara, lantokietara, euskaltegietara eta edonora eramateko prestutasun osoa duzuen horiei. Zorionak zuen tarte libreetan askotariko gaiak orriotara ekartzen dituzuen zutabegile eta erredaktoreei.

Zorionak trenez, autobusez edo batek jakin nola, ale bat eraman, irakurri eta hurrengo geltokian uzten duzuen horiei. Zorionak eguneroko bizitza argazkien bidez, elkarrizketak eginez eta erantzunez, edota deialdi interesgarrien bidez erakusten diguzuenoi. Zorionak eta mila esker.

4 paper zati eta 16 orri soilik ikusten dira hemen, baina, egunerokoa Aiaraldean nolakoa den kontatzen digun ale honek herritar andanaren sostengua du atzean. Ezin ahaztu eskualdea handi, aberats, ameslari eta kementsu bilakatzen duen herritarra. Euskararen alde aletxoa uzteko prest dagoen kalekumeak, merkatariak eta jendarteak elikatzen du ingurunea. Bataren eta bestearen konpromiso txikiekin lurrok euskalduntzeko nahi adina gaitasun dugu.

Egunkaria horren isla baino ez da. Gure bizitzetan euskara sartu dugu. Paperean. Doan. Denok. Eskutik eskura. Zeinek dio ametsak ez direla egi?

kutxabank-ekin hazi

primeran!
Gazteentzako Kutxabanken plan, proposamen eta irtenbideak.

Kutxabanken hipoteka gaztea*:

Euriborra +%1,25etik

35 urte bete arte.
Euriborra + %1,50 epearen gainerako aldirako.

Lehenengo urteko ITN: %2,50
UTBAldakorra: %2,47

Balizkoa: 27 urteko bezeroa; 100.000 euroko mailegua; 30 urteko epea (tasazioaren zenbatekoaren gaineko %80a). Kuota finkoa, amortizazio-sistema frantsesa. Euriborren balioa 2014ko abuztuko BOEkoa da: %0,469.

(*) Eskaintzaren baldintzak: hilero 4.500 €tik gorako nominak helbideratuta edukitzea; Kutxabank txartelen bidez saltokietan egindako kontsumoa urteko 2.400 €tik gorakoa izatea; eta Baskepensionesera edo Pentsio Planera egindako ekarpena 1.000 €tik gorakoa izatea.

Indarreko legeriaren arabera, adibide honetan UTBAldakorra kalkulatzeko hasierako gastuen zenbatekoa hurrengo hau da: 1.861,60 €. Irekiera-komisioa: 0 €. Etxebizitza-aseguruaren baldintzak: 61. 287 euroko edukitzailearen kapitala; 24.514,80 euroko edukiaren kapitala; eta 243,81 euroko prima. Tasazioa: 272,25 €. Erregistroaren ordainsariak: 310 €. Gestoria: 305,54 €. Zergak: 730 €. Bezeroak kontratua egitean ordaindu behar ditu.

Etxebizitza-asegurua Kutxabank Seguros konpainiarekin kontratatu behar da. Bitartekaria: Kutxabank SA Banka-Aseguruen Operatzailea. Honako eskaintza hau merkatuaren bilakaeraren arabera alda daiteke eta Kutxabank SAk onartuz gero, mailegua emango da.

Eskatutako baldintzak bete ezean, Euriborren gaineko diferentzialak UTBAldakorraren %0,60ko proportzioan (%3,024) handituko dira.

UTB Aldakorra erreferentziazko indizeak aldatzen ez direlako hipotesiaren arabera kalkulatu dira; beraz, UTB Aldakorra interes-tasak berrikusi ahala aldatuko da. Urtero berrikusiko da.

primeran!

Kutxabank, S.A., Kale Nagusia, 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizk. Merk. Erreg. 5226 T, 0 L, BI-58729 0, 1 F, 1. I.

Nerbioiko Parke Lineala, pausoz pauso aurrera doan ibilbidea

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Laudiotik Salbiora doa Nerbioiko Parke Linealean orain arte eraikitako zatia. 7.700 metro. Ez dira gutxi ibilbide hori oinez edo bizikletaz igarotzen duten herritarrak: 12.850 bataz beste hilean. Eta ez da gutxi ezta ere ibilbidean zehar topatu daitekeen ondare natural zein historikoa.

Laudiotik Salbiora doa jada eraikia dagoen Parke Linealaren zatia. Argazkia: Jon Katalan

Bizikletaz edo oinez Laudiotik Salbiora joatea. Hori da Nerbioiko Parke Linealaren lehen faseko ibilbideak ahalbidetzen duena. Eta ez da edonolako bidea: Nerbioi ibaian gora doa, ertzetik doazen bideak edota ibaia alde batetik bestera zeharkatzen duten zubi eta pasabideak baliatuta.

Laudioko Gardea auzoan hasi daiteke ibilbidea, Gurutze Santuaren parrokiatik. Alboan dagoen zubia zeharkatuta bizikleta bidea hartu daiteke. Kilometro bat aurrerago Parke Linealeko lehen zubia dago. Burua atera eta uretara begiratzeko une egokia izan daiteke hori. Zorte apur batekin, ibaian aski ugariak diren karramarro amerikarrak ikusi ahal izango ditu ibiltariak.

Zubi hori ez da ibilbidea egiterako orduan zeharkatu beharreko bakarra. Handik kilometro pasatxora beste bat topatuko du bisitariak. Zubia zeharkatu baino lehen urertzeko belar-guneei begiradatxo bat bota ahalko lioke paseatzaileak. Ikusteko zailak diren arren, hor nonbait dabiltza bisoi amerikarrak. Hala adierazi du Mario Corral naturazale amurrioarrak. Bere hitzetan, bisoi amerikarra espezie inbaditzailea da: "lehen bazegoen bisoi europarra, baina jada ez dago". Bisoi europarrak mutur zuria du, amerikarrak beltza duen bitartean. Baina azken hori "handiagoa eta indartsuagoa" dela adierazi du Corralek.

Behin bigarren zubia zeharkatuta, bisitariak eskuinera egin beharko du bira, ibaian gora jarraitzen duen asfaltozko bide batetik joateko. Bertatik jarraitzen du ibilbideak, harik eta ia lau kilometro egin ostean Luiaondon sartu arte.

Bisoi eta karramarro amerikarrak, lertxunak, txio arruntak, martin arrantzaleak... ez dira gutxi Parke Linealean barrena topatu daitezkeen animaliak.

Atseden bat hartzeko unea izan daiteke. Eta geldiune horretan ideia ona izan daiteke zerura begiratzea, hegazti espezie ugari topatu baitaitezke ibaiaren gainean hegaka: lertxuna, martin arrantzaleak, txio arrunta, ahateak...

Ondare historikoa

Animaliak soilik ez, Parke Lineala ondare historiko eta etnografikoan ere bada aberatsa. Luiaondora iritsita harrizko gurutze batekin egingo du topo bisitariak. Bertan omen zegoen bere muga militarra markatzeko Bizkaiko lehen jaunak landatu omen zuen Malato zuhaitz ospetsua. Ibilbidean aurrera jarraituz gero Zubibarri zubia gurutzatuko du ibiltariak. Hura zeharkatu eta eskumarantz biratu behar da, eta zuzen jarraitu gero, harik eta seigarren kilometrora iristean metalezko zubi gorri luze bat topatu arte.

Ibaiaren beste ertzera iritsita hortik jarraitu behar da ibaian gora, harik eta trenbidearen azpitik pasa eta 400 metrora beste zubi batekin topo egin arte. Zubi hori igaro eta beste aldera pasata, kilometro bat aurrera egin eta beste pasabide bat topatuko du ibiltariak. Beste aldetik metro batzuk ibilita iritsiko da Salbioko tren geltokira, ibilbidearen amaierara.

Ez dira gutxi arestian aipatutako ibilbidea egitera animatzen diren aiaraldearrak: hilabetero, bataz beste ,12850 bisitari inguru ditu Parke Linealak; esaera zaharrak dioen bezala, bidea ibiltzen egiten delako.

7.700 pauso eman behar dira Laudioko Gardea auzotik abiatu, Luiaondo zeharkatu eta Salbion bukatzen den bidea egiteko.

PARKE LINEALA ZENBAKITAN:

12.850
hilabete bakoitzean Parke Lineala erabili duen bataz besteko pertsonen kopurua

33
kilometroko ibilbidea du Parke Linealaren proiektuak, Delikatik Arakaldoraino

%23
Parke Lineal osoaren laurdena baino gutxiago dago eraikia, guztira 7,7 kilometro.

373.000
euro baliatuko dira Salbiotik Amurriora bitarteko tartea egiteko

Aurten bukatuko dituzte Salbio eta Amurrio lotzeko obrak

Oinezkoentzako zein bizikletan doazenentzako 900 metroko bidea eraikiko dute. 200.000 euro baliatu ziren lursailen erosketan, eta 173.000 euro gehiago inbertituko ditu Arabako Foru Aldundiak obra egiteko.

Hasi dira Salbio eta Amurrio lotzeko obrak. Argazkia: Jon Katalan

ERREDAKZIOA I

Parke Linealaren proiektuarekin jarraitzeko pausoak ematen ari da Foru Aldundia udazken honetan, Salbiotik Amurriora bitarteko zatia eraikitzeari ekin baitiote.

900 metroko luzera izango du ibilbideak, eta Sagrada Familia ikastetxearen pareraino iritsiko da, Josune Irabien Amurrioko alkatearen hitzetan. Obrak 373.000 euroko kostua izango du guztira. Horietatik, 200.000 iaz erabili ziren, bideak zeharkatuko zituen lursailak erosteko. Beste 173.00 euroak, berriz, Campezo izeneko enpresari esleitu zaizkio, obrak egin ditzan.

Uda amaieran hasi dira obrak eta oro har hiru hilabete irautea dago aurreikusia. Hala, urtea bukatu baino lehen amaitua egon beharko luke bide zati berria. Zati berri horrek ibaia zeharkatuko luke. Hala, zubi bat jartzea aurreikusia dago.

Zati berriak Amurrioko herritarrei Parke Linealaz gozatzeko aukera emango lieke.

8.6 kilometro guztira

Salbiotik Amurriora joango den bidea eraikitzen denean 8.6 kilometroko luzera hartuko du orain arte eraikitako Parke Linealaren zatiak. Lehen zatia 2010ean eraiki zen; 3.400 metro ditu eta Laudioko Gardea auzoa Luiaondorekin lotzen du.

Luiaondotik Salbiora bitarteko zatia, berriz, 2012an bukatu zen. 4300 metrokoa da eta hiru zubi ditu. Zubirik ikusgarriena Markijana inguruan kokatua dagoena da, 182 metro baititu.

Gauzak hala, orain egiten ari diren obra bukatzean aukera egongo da Laudiotik Amurriora oinez edota bizikletaz ingurune natural batetik joateko, inolako arriskurik gabe.

Proiektuari jarraipena emateko hurrengo pausoak, zehazteke

Ez dago zehaztuta noiz ekingo zaion proiektuaren gainontzeko zatiak gauzatzeari. Gaur egun 33 km-tatik 7,7 baino ez dira atondu.

ERREDAKZIOA I Txabi Alvarado Bañares

Behin bukatuta, 33 kilometroko ibilbidea izango luke Nerbioiko Parke Linealak. Urtea bukatu baino lehen eraikiko da Salbiotik Amurriorainoko zatia. Zati hori eginda, baina, oraindik 24.4 kilometroko ibilbidea osatu beharko litzateke proiektua bukatzeko.

Alde batetik, Laudio eta Arakaldo bitarteko zatia dago. Bide horren planteamendua eta planoak 2005ean aurkeztu ziren. Laudiotik Atxetara bidegorria jada eraikia dago. Behin Atxetara iritsita aurrera jarraitu eta errepidea eta ibaia zeharkatu lituzke, ondoren bitan banatzeko. Bideetako bat Arakaldoko geltoki pareraino joango litzateke. Beste zatia, berriz, Orozkoko lurretan zehar ibiliko litzateke (ez herria), Anuntzibai jauregiraino. Hala, ibilbideak "T" forma hartuko luke. Ibaia zeharkatzeko zubia eraikitzea da falta dena eta, planoak egin zirenetik hamar urte betetzera doazen arren, oraindik ez dago zehaztua ez aurrekontua ez eta obrak noiz hasiko liratekeen ere.

Lursail erosketa, martxan

Salbiotik Amurriora bitarteko zatiari dagokionez, Josune Irabien Amurrioko alkateak adierazi du "horraino dagoela dirua eta horraino ari dela Arabako Foru Aldundia egiten". Amurriotik Delikara bitarteko zatiari begira, baina, udaletik zenbait aurrerapauso emango dituztela aurreratu du alkateak, "Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntza batekin zenbait lursail erosteko asmoa dugu, proiektuari jarraipena emateko". Lursailen jabeekin hitz egiten ari direla azaldu du Irabienek, baina gaineratu du oraindik zehaztu behar dutela hurrengo ibilbide-zatia noraino egingo duten. Hala ere, Irabienek azaldu du "Reforretik Saratxora doan ibai ondoko ibilbidea" jarraitzeko asmoa dutela.

Dena dela, obrak egiteko dirua Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak erdibana jarri behar dutenez, Irabienek adierazi du Aldundiaren 2015eko aurrekontuetan horretarako dirua egotea espero duela. Javier de Andres Arabako Ahaldun Nagusiak, bere aldetik, Parke Linealaren proiektuarekin aurrera jarraitzeko asmoa duela adierazi zuen Aiaraldea Egunkariaren aurreko alean egindako elkarrizketan.

Delikarainoko ibilbide osoa egitearen erantzukizuna, baina, ez da Arabako Foru Aldundiarena, Urduñari dagokion zatia finantzatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren esku baitago.

Arrankudiaga-Zollotik Bilbora

Arrankudiaga-Zolloraino ez litzateke Nerbioiko Parke Linealaren ibilbidea iritsiko, baina existitzen da bizikletentzako eta oinezkoentzako beste bide baten proiektua, herritik Bilboraino joango litzatekeena.

Proiektu hori Bilboko Plan Metropolitar Partzialean sartua dago, baina fase teknikoan dago oraindik. Bizkaiko Foru Aldunditik zehaztutakoaren arabera, bizikletentzako bideen araudia berriki onartu da. Arautegi hori baliatua jada existitzen diren azpiegiturak bidegorriekin nola uztartu aztertzea da asmoa, hala etorkizun batean ibilbidea diseinatu ahal izateko.

Adin guztietako jendeak egiten du ibilbidea, oinez zein bizikletan.

_kultura

ADAM DRAM

"Antzerkiarekiko maitasuna konpartitzera datozenen ametsen bila gabiltza"

ZUTOIA ALARCIAk (Laudio 1959) ibilbide luzea egin du aktore moduan. Duela hiru urte Adam Dram egitasmoa jarri zuen martxan, Aiaraldean arte eszenikoak sustatzeko. Proiektu berriekin hasiko du Adam Dram-ek udazkena.

Antzerkian zein telebistan ibilbide luzea egin du Zutoia Alarciak.

ERREDAKZIOA I

Duela hiru urte hasi zineten Adam Dram proiektuarekin. Nola sortu zen?

Bizi naizen lekuan antzerki eskola bat jartzeko neukan nahitik sortu zen. Eskaintza kultural eskaseko nekazalgune bat izatea, proiektua albo batera uzteko arrazoi bat izan ordez, egitasmoari ekiteko pizgarri nagusiena bilakatu zen, bai niretzat eta baita proiektuan lagundu zidatenentzat (nire mutil laguna den Xabi Puertarentzat batez ere).

Proiektua beste ideia eta proposamen batzuekin aberastu zen... horietako batzuk aurrera eraman ahal izan ditugu. Beste batzuk, berriz, ez.

Bideragarria da halako egitasmo bat Aiaraldean?

Bideragarritasun ekonomikoa ez da inoiz gure lehentasuna izan. Lehentasuntzat hartu izan bagenu ez genukeen inoiz Adam Dram irekiko. Gure ametsen eta gurekin antzerkiarekiko maitasuna elkarbanatzera datorren ororen ametsen atzetik gabiltza Adam Dram-en.

Kurtsoa hastear zaudete. Zer eskainiko duzue aurten?

Printzipioz gure eskaintza profesional eta amateurrak diren helduei zuzendua egongo da. Urrian hasiko gara, nik zuzenduko dudan interpretazio eta eszenaratze ikastaro batekin. Irakasle profesional gonbidatuek ere hartuko dute parte eta uda partean antzezleku komertzial batean ikuskizun bat estreinatzea izango da xedea. Iaz David Mameten *Edmond* antzezlana estreinatu genuen Amurrioko Antzokian, eta aretoa bete egin zen.

Ikastaro horren ostean, hilabeteak aurrera joan ahala eskaintza gehiago egongo dira, dena ondo baldin badoa.

Aktore moduan ibilbide luzea egina duzu. Noiz ekin zenion bide horri?

Aktore moduan eman nituen lehen pausoak, ziurgabetasun handiz emanak izan ziren arren, goiztiarrak izan ziren. Txikitatik sentitu izan dut besteen aurrean dantzatzeko, abesteko eta antzezteko beharra. Nire lagunen begiradak bereganatu nahi nituen, eta haientzako antzezten nuen.

Pozoi hori ia-ia sehaskatik neramala esango nuke. Hollywood-eko musikalak ikusten eta nire klase-kideentzako *claque* emanaldiak eskaintzen koskortu nintzen. Baina garai hartako familia zein jendarte egoerek ez zuten gaitasun eta desio horiek bideratzen laguntzen.

Nola lortu zenuen, orduan, gaitasun eta desio horiek ogibide bihurtzea?

Amesten eta ametsak egi bihur zitezen tematzen. Aktore moduan garatzeko aukera eskaini ahal zidaten leku eta pertsonak bilatu nituen beti. Nire ibilbide profesionala Geroa konpainian hasi zen. Garai hartan euskal antzerki talderik garrantzitsuena zen, eta sei urte eman nituen bertan, bost ikuskizun egiten. Eolo Teatro-n ere egon nintzen (zeinekin bi Ercilla sari lortu genituen) eta baita Ur Teatro-n ere. Antzerki talde horrek Antzerki Sari Nazionala eskuratu zuen.

Lehen mailako antzerki talde horiekin hainbat jaialditan hartu nuen parte, nazio zein nazioarte mailako birak egin nituen eta ehunka antzezpen egiteko aukera izan nuen, zeintzuekin eskoletan ikasten ez dena ikasi eta aktore moduan indartzeko aukera izan nuen. ETBn ere aritu nintzen, *Señorio de Larrea* telesailean eta *Hay que ver* talk-show-an... eta Madrilera egin nuen salto!

> "Bideragarritasun ekonomikoa ez da inoiz gure lehentasuna izan. Lehentasuntzat hartu izan bagenu ez genukeen inoiz Adam Dram irekiko"

> "Nik neuk idatzi dudan musika eta antzerki ikuskizun bat martxan jartzeko asmoa daukat, Madrilen"

Eta Madrilen nondik ibili zinen?

Ezin naiz kexatu, egia esan. Telesail onetan egin nuen lan, nahiz eta jendeak pertsonai batengatik ezagutzen nauen batez ere: Tele 5-ko *El comisario* telesaileko polizia zientifikoko Elena Serrano inspektorearen pertsonaiagatik. Kalitatezko antzerkia egiteko aukera ere izan nuen, Antzerki Zentro Nazionaleko zuzendari izandako eta Teatro Españoleko zuzendari den Juan Carlos Perez de la Fuenteren konpainian.

Ez dut inoiz ahaztuko bere zuzendaritzapean egindako Alfono Sastreren *¿Donde estas, Ulalume, donde estas?* obra. Sastreren obrarik esanguratsuenetariko bat da, eta bera da nik gehien maite dudan egilea, ez soilik antzerkigile moduan, pertsona moduan batez ere.

Eta orain non zabiltza, Madrilen ala Euskal Herrian?

Bietan nabil, egia esan. Adam Dram da gaur egun Euskal Herrian egiten ari naizen proiektua. Egitasmo hori diseinatu, abiarazi eta finkatzen igaro ditudan hiru urteetan zehar ikus-entzunezkoen edota antzerkigintzaren industriako lana alboratu behar izan dut, bestean oso murgildua nengoelako.

Baina udazken honi begira nik neuk idatzi dudan eta antzeztea espero dudan antzerki eta musika ikuskizun bat martxan jartzeko asmoa dut, Madrilen.

Txani Rodriguez
IDAZLEA

_Kamerinoa

Aitzindariak

Guridi zinemak barne hartu zuen lekua supermerkatu bilakatu dela jakin izan dut orain dela gutxi. Modernitatearen sintoma dirudite zinema aretoen itxierek. Gure hiriburuetan zinemak ixten doaz poliki -poliki. Gustukoa nuen nik, esate baterako, Bilboko Renoir aretoa, zirkuitu alternatiboko zenbait film ikusteko aukera eskaintzen zuelako. Baina urte batzuk daramatza itxita. Donostiako Zinemaldiaren distirak urrunegi gelditzen zaizkigu gehienoi.

Hitzordu kultural erraldoi hori pasa ostean, pertsianak jaitsita zinema aretoa gehiegietan. Itxiera mota horretan – eta modu apalean esango dut-, laudioarrak izan ginen aintzindari. Ez dakit zenbat urte daramatzagun zinema areto barik. Nik Laudion ikusi nuen azken pelikula "La boda de mi mejor amigo" izan zen. Ai, ama. "Gallinero" deitzen genuen tokian eserita nengoen. Soinua hain petrala zen ezen ezin baikenituen elkarrizketak jarraitu.

Aurreko egunean, lagunekin solasaldian, gogoratu genituen Villosa-k antolatzen zituen sesioak. Pegatina borobil batzuk ematen zizkiguten... Zein urrun dagoen garai hori eta zein urrun Donostia. Hala eta guztiz ere, Kepa Sojo, Tinieblas González edo Esti Urresolari galdetu diezaietela gure herrian zinemaren magiak hilik ala bizirik irauten duen.

_kultura

_Hilberriak

XABIER LATORRE (1947-2014)



Iragan irailaren 27an zendu zen Xabier Latorre amurrioarra. Musikari familia batean jaioa, musika izan zuen bere bizitzaren ardatzetako bat. Txistua maisuki jotzeagatik bilakatu zen ezagun, eta Amurrioko zein beste herri batzuetako abesbatzekin aritu zen jotzen.

Munduko zenbait herrialde bisitatzeko aukera eman zion horrek; eta instrumentu hori lehenbiziko aldiz entzuten zuten austriar edota suitzarrak liluratuak geratzen ziren Latorreren maisutasunaz ohartuta. Orozko-Ibarrako Itxinape eta Aretako Untzueta dantza taldeekin aritu izan zen musikari, eta Aiara Dantza Taldearen lehen urteei ere jarri zizkien notak. Eskualdeko herri asko jantzi zituen musikaz, kalejiraz-kalejira eta festaz festa. Eta txistua soilik ez, klarinetea ere oso ondo jotzen zekien. Txistu maisua izateaz gain, aita apala eta lankide ona izan zela azaldu dute bere lagunek, izaera xumekoa. Hortaz gain, bere ezaugarririk nagusiena bere maitasuna izan dela azpimarratu dute.

_kultur leihoa

Lander Arteaga
ZINEMA

#Chef

Zuzendaria: John Favreau
Gidoilaria: John Favreau
Aktoreak: Jon Favreau, Sofía Vergara, John Leguizamo, Scarlett Johansson, Oliver Platt...
Herrialdea: AEB
Iraupena: 115 minutu

Iron Man sagarekin zuzendari famatu bilakatu ondoren, John Favreau zuzendari eta aktorea film txikietara bueltatzen da komedia zintzo eta atsegin honekin, #Chef. Carl Casper sukaldaria protagonista duen film familiar honek sukaldaritza eta sare sozialak ditu bere elementu nagusiak; sare sozialetan "birala" bilakatuko den kritika zorrotz baten ostean, Casperrrek bere lana bertan behera utziko du, ilusio berriztatu baten bila bere erroetara bueltatuz. Ez da Favreau film honetan aurkituko dugun aktore ezagun bakarra; zuzendari eta aktore estatubatuarrarekin batera, #Chef filmean, John Leguizamo, telebistan famatua egin den Sofía Vergara, Scarlett Johansson, Oliver Platt edota Dustin Hoffman ere ikusiko baititugu.

Umorez beteriko film hau berpizte profesional eta pertsonalaren inguruko alegi zoragarri eta entretenigarri bat da, non aktore nagusien arteko kimika bikainak lanaren emaitza finala indartzen duten. Gozoa bezain arina, konturatu aurretik pelikularen azken minutuetan egongo gara, irribarre atsegin batekin.

Zineman ondo pasatzeko aukera ezinhobe bat.

(#Chef filma Laudioko LHUIn proiektatuko da urriaren 11n, ikus agenda).

Gerardo Lopez de Gereñi Sariaren III. edizioa izango da aurtengoa.

Araban euskararen testigantzak bideoan jasotzeko lehiaketa abian

ERREDAKZIOA I Uxue Tome Vivanco

Gerardo Lopez de Guereñu Saria historian zehar euskarak Arabako gizartean izan duen lekua aditzera emateko sortu zuten, eta aurten sariaren hirugarren edizioa egingo dute.

Lehiaketan parte hartzeko, 12 eta 30 urte bitarteko adina izan beharko da, bakarka edo gehienez hiruko taldeetan elkartu eta bideoan jaso beharko dira lurraldeko lekukotasunak, kontakizunak, esperientziak, bizipenak, pasadizoak edo ipuinak. Lan horiek euskarak inguruan duen presentzia eta transmisioa erakutsiko dute, familian zein gizartean, auzoan edo ondoko herrian; herri atsotitzak, jokoak, kantak edo tradizioak kasu.

Bideoa grabatu ondoren 618079879 zenbakira bidali beharko da whatsapp edo telegram bidez. Ikus-entzunezkoak euskaraz aurkeztuko dira, jaso diren hizkuntza eta lekukotasunak errespetatuz.

Hala ere, ezaugarri batzuk daude bideoak aurkezteko: gutxienez minutu 1, eta gehienez, 5 minutuko bideoak izan beharko dira. Bestalde, zazpi sari banatuko dira guztira. Kategoria bakoitzean (12-16 eta 17-30 urte) bi sari egongo dira, taldeka aurkeztutako kategoria bakoitzeko bideorik onenari beste sari bana, eta jendeak bozkatutakoari beste bat.

Sariak Smart Phone, tabletak, Cines VESAren bonoak Florida Zinemarako eta bi eguneko egonaldia sei pertsonentzat aterpetxe batean jarduera guztiak ordainduta izango dira. Lehiaketari buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero, bere web -gunean oinarriak eta promo bideoak ikusgai egongo dira.

Gerardo Lopez de Guereñu

Historiaz, mendiaz, arteaz, toponimiaz, etnografiaz, Arabako herriez edota herri-jai, medikuntza eta botanikaz hainbat lan egin zituen Gerardo Lopez de Guereñu arabarrak.

Argazkilari lanetan nabarmendu zen ekarpen ugari eginez bai artistikoki zein dokumentazio aldetik. Liburu eta artikulu sorta izugarria egin zuen Arabaz.

+info: hirugarren edizioa iragartzen duen spota hemen ikusgai

Luis Vilek Leopoldo Maria Paneroren poesiari musika jarriko dio Izar&Star zikloaren irekieran

Luis Vil musikari eta zinemagile amurrioarrak Leopoldo Maria Panero artistaren poesia musikatua joko du Izar&Star pop-rock zikloan. Bilboko Campos Eliseos antzezlekuan. Urriaren 11n izango da zita, 20:30ean. Luis Vilek "La mala crianza" taldearekin joko du, zeinetan Igor Arzuaga musikari aretarra ere dabilen.

Izar&Starren V. edizioa izango da. SGAE elkarteak antolatzen du zikloa, inguruko pop-rock taldeak ezagutzera emateko xedearekin.

III. Antzerki amateur erakustaldia, Aimara antzerki taldearen eskutik

ERREDAKZIOA I

Urriko eta azaroko larunbatak antzerki amateurra ikusten igarotzeko aukera egongo da Amurrioko Antzokian, Aimara antzerki taldeak III. Antzerki amateur erakustaldia prestatu baitu.

Lau zita izango ditu erakustaldiak. Lehen hitzordua urriaren 11n izango da, Antifaz taldearen "Como decirle que no la amo... pero la quiero" lanarekin. Hurrengo asteburuan, hilaren 18an, Banarte taldearen txanda izango da, "Guernica 1913" lanarekin. Urriaren 25ean "Torito ¡bravo!" antzezlana taularatuko dute El Duende-ko kideek eta, bukatzeko, "Yo soy la revolución" antzezlana ikusteko aukera egongo da azaroan. Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira eta sarrerek 4 euro balio dute.

Egoitz Bernaola
HISTORIAZALEA

_Lurpetik

Joaquín Bárbara y Balza, oroimen galdua baino gehiago.

Ikerketa historikoaren prozesuan zehar hartzen diren ibilbideek iraganeko pertsonaia eta elementuen aurkikuntza eta elkartze bitxiak eskaintzen dizkigute batzuetan. Gauzak horrela, gainean daramatzaten urteak astindu, beren funtsa eta kolorea berreskuratu eta inoiz ez galdu behar izan zuten arreta eta garrantzia eskatzen dizkiote gure begirada garaikideari.

Joaquín Bárbara y Balza Aiarak eman duen artista plastiko garrantzitsuenetarikoarekin gertatutakoa izan da, kasurako. Laudion jaioa 1867an, orain dela hamarkada gutxi arte eskasak ziren haren argiak eta itzalak ezagutzen zituzten herrikideek. Bere bizitzaren gainbeherak, azken urtetan panorama artistikoan atzera-egite diskretu eta, geroago, isildutako heriotzarekin batera estalita, laurogei urte luze iraun duen ahazteari eraman zion. Zenbait hurbiltzeren ostean, eta 2013an Berraurkituriko begiradak erakusketa prestatzen ari zen bitartean, ezohizko aurkikuntza jazo zen: Bárbararen 8 mihise ezezagunen berragertzeak Aiaraldearen bihotzean, bizi-bizirik, gure laguntza galdatuz. Eta, haiekin bat, beren sortzailea.

Honela eman zaio hasiera pertsonaiaren inguruan egun martxan dabilen berreskuratze-prozesuari, guztion —aditu eta baita ezjakinen ere— aberaste kulturala hornitu dadin. Pintoreari buruzko monografia biografikoa sortzea da nire ekarpen pertsonala Erroke Deunaren Anaidiak sustatutako ekimen bikain honen barruan. Lerro hauetatik, nire ilusioa helarazi eta prozesuaren urratsak "Joaquín Bárbara y Balza, pintor entre dos siglos 1867-1931" Facebook orrialdearen bidez jarraitu eta partekatzeko adorea ematen dizuet. Artista honen oroimen eta ondareak hori merezi dute eta.

_kirola

FUTBOLA

“Athletic-en eta Euskal Selekzioan jokatuta nire txikitako ametsa bete dut”

NEREA RUIZ (Laudio, 1998) Athletic-eko jokalaria da eta hori gutxi balitz Euskal Selekziokoa. Pasa den astean Espainiar Selekzioak hautatutako kirolarien artean egon zen Europar Txapelketa prestatzeko sub-17 kategorian.

ERREDAKZIOA I Gentza Garcia

Espainiar selekzioarekin entrenatzen egon zara, zenbat egunez?

Astelehenetik hasita asteazkena heldu arte egon ginen; hegazkina astelehen goizean hartu genuen 12:00ak aldera eta guztira lau saio egin genituen egun horietan. Tartean gure arteko partidutxo bat ere jokatu genuen.

Lehenbiziko eguna gure artean hobeto ezagutzeko bideratu genuen eta asteartea baino lehen ez genuen baloia hartu.

Goizean posesioa lantzeko saioa egin genuen eta arratsaldekoa suabeagoa izan zen atseden hartzeko eta jaurtiketak zein rondoak trebatzeko eta azkenik asteazkenean, esan bezala, geure arteko norgehiagoka txiki bat egin genuen.

Nola baloratzen duzu bertan egon izanaren esperientzia?

Oso ondo, gehienak elkar ezagutzen genuen jada eta horrek asko errazten du hiru egun horietako bizikidetza.

16 urte azpiko selekzioak ez zuen orain arte txapelketa ofizialik jokatzen baina aurten nazioartean jokatuko duzue, lehendabiziko aldiz.

Bai, hala da, apirilean jokatuko dugu lehenengo fasea, izan ere, iaz 17 urte azpiko taldeak bigarren postua erdietsi zuen mundialean eta horrek automatikoki jokatzeko aukera eman zigun guri. Lortuz gero, azken fasea ekaina aldera jokatu beharko genuke.

Zer nolako ikuspegia daukazu zure parte-hartzeari begira?

Nahiago dut pausoz pauso joatea eta oraina gozatzea, ez dut Europako txapelketan gehiegi pentsatu nahi momentuz. Aukera helduko balitz nire esku dagoen guztia egingo nuke baina beste edozertara baino lehen disfrutatzera joango nintzateke.

Espainiar selekzioarekin jokatzera heldu baino lehen ibilbide luzea egin duzu jada Laudion, Gasteizen eta Athletic-en. Nolakoa izan da bide hau?

Hasieran Laudion aritu nintzen bi urtez eta jarraian beste denboraldi pare bat eman nituen Gasteizen Euskadi mailan jokatzen. Azkenik Athletic-en jokatzeko aukera azaldu zitzaidan eta oso pozik bizi dut nire oraingo egoera.

Argazkia: Iñigo Larreina (UGS Visión)

“Plus bat dauka Euskal Selekzioarekin aritu izanak”

“Txiki-txikitatik izandako amets bat da Athletic-en jokatzea, egunero aprobetxatzen eta gozatzen saiatzen naizena”

“Ez dut Europako Txapelketan gehiegi pentsatu nahi”

Sekulako bilakaera izan duzu jokalari gisa, 17 urterekin bigarren mailan jokatzeak hala adierazten du.

Athletic-en bigarren taldea, nirea, alegia, harrobi lana burutzeko lekua da, helburu nagusia jokalariak trebatzea da eta lehenengo taldera iristeko xedearekin aritzen gara bertan. Taldearen fitxaketa politikak gazteongan beste klubetan baino gehiago zentratzera bultzatzen du, agian.

Zeintzuk dira Nerea Ruiz-en ezaugarriak jokalari bezala?

Nahiz eta hasieran aurrean jokatu nuen denborarekin nire postua aldatzen joan naiz eta aurten defentsari begira jokatu dut bereziki, ilunpean akaso. Ez nuke esango ezaugarri bereizgarri garbiren bat daukadanik ez bainaiz zelaiko altuena ez arinena, baina langileena izaten saiatzen naiz beti.

Euskal Selekzioarekin ere aritu al zara?

Bai, orain dela bi urte Valentzia eta Zamoran jokatu nuen taldearekin baina tamalez ez ginen azken fasera iritsi. Iaz ere deialdian sartu nintzen eta Bartzelonara joan nintzen taldearekin baina ostean mina hartu nuen eta ezin izan nuen hurrengo fasean parte hartu. Edozein kasutan oso bestelako esperientzia izan zen niretzat, plus bat dauka bertan jokatzeak.

Nola ikusten duzu zure burua epe motzean?

Patxadaz hartzen saiatzen nahiz egunean egunekoa bizi eta gozatuz. Ez daukat presarik pauso erraldoirik emateko ez eta bide honetan gelditzeko asmorik ere.

Baldintzatzen du zure bizitza Athletic-en bigarren taldean jokatzeak?

Astean zehar ezin naiteke atera, futbola eta ikasketei zuzentzen baitiet nire denbora gehiena eta larunbatetan ere orduarekin arretaz jokatu behar dut igandeak partidu eguna direlako eta atsedena hartzea guztiz ezinbestekoa delako biharramunean behar bezala aritzeko.

Zer suposatzen du zuretzat, Nerea, Athletic-en jokatzeak?

Amets bat da, txiki-txikitatik izandakoa eta egunero aprobetxatu eta gozatzen saiatzen naizena. Bai jantzita daramadan arropa, Lezamako instalazioak edota San Mamesera joateko aukerak handiak dira.

Nola hartzen dute zure inguruko lagunek eta kideek zure futbolari karrera?

Laudion baloi batekin jokatzen hasi zen pertsona bera naiz eta orduan hain txarra ez banintzen ez naiz hain ona orain ere. Kide normaltzat hartzen naute guztiek, inork ez du arrarotzat hartzen nire bizimodua.

Gaizka Barañano
LASTERKARIA

_Kamerinoa

Koordinazio apur bat, mesedez!

Aiaraldean ez gara gutxi mendiarekin lotutako kirolak maite ditugunak. Kirol horiek (mendi lasterketak, mendi duatloiak, abentura raid-ak...) kirol gutxituak dira, eta, kasu gehienetan, kirol gazteak. Horregatik, zoritxarrez, kirol horietan lehiatzeko gure ingurutik urrun joan behar izaten dugu, gehienetan.

Aiaraldean, zorionez, diziplina horietan lehiatzeko gero eta aukera gehiago ditugu, urtero. Horrek poztu egiten gaitu, noski, baina bestalde, ez dut uste ona denik asteburu berean Gorobel mendilerroan hiru lehiaketa egitea; horixe gertatu zen irailaren 20 eta 21eko asteburuan.

Irailaren 20an, goizeko 10:00etan, Trail-parapente Duatloia: Tertanga - Frailea haitz-punta (bertan behera geratu zen eguraldi txarragatik)

Irailaren 20an, goizeko 10:00etan, Aiaraldea Raid abendura: Arrespalditza - Gorobel mendilerroa

Irailaren 21a, goizeko 10:30ean, Mendi Duatloia: Urduña - Txarlazo.

Aurretiaz esan bezala, kirol horiek praktikatzeko urrunera joan behar izaten dugu askotan (Euskal Herria, Espainia edo Frantzia). Zoritxarrez, bidaia gastu horiek guk ordaintzen ditugu, eta ez beste kirol batzuetan gertatzen den bezala, diru-laguntza gehiago izaten dituztela.

Koordinazio apur bat, mesedez!

_kirola

XAKEA:

Haurrentzako xake ikastaroa antolatu du Laudioko taldeak

Laudioko Xake Taldeak xakean jokatzen ikasteko ikastaroa prestatu du. Kurtsoa 7 urtetik gorakoei zuzendua dago, eta urriaren 11an hasi eta abendura arte iraungo du. Kultur Etxean egingo da ikastaroa. Taldearekin kontaktatzeko 669098017 telefonora deitu daiteke.

ARETO FUTBOLA:

Jonathan Camara Europako txapelketan Baku United-ekin

Jonathan Camara artziniegarrak parte hartzen duen Baku United FC futbol areto taldeak Europako txapelketako txanda nagusiko lehen hiru partidak irabazi ditu eta hurrengo kanporaketan egongo da. Luparense taldearen aurkako partidan gol bat sartu zuen Camarak.

TXIRRINDULARITZA:

Julen Latorre lezamarra, Arabako txapelduna Murgian irabazi ondoren

16 urte baino ez ditu Julen Latorre txirrindulari lezamarrak, baina hori ez du oztopo bizikleta gainean aritzerako unean. Iragan irailaren 27an Arabako Erlojupeko Txapeldun titulua lortu zuen. Iragan asteburuan, berriz, Open Diario de Navarra mendi lasterketan atera zen garaile.

Urriaren 12an izango da Urduñako Mendi Martxa.

Mende erdia ospatzeko Txarlazok mendi-jardunaldiak antolatu ditu

ERREDAKZIOA I Aimar Gutierrez

Urduñako Txarlazo mendi taldeak bere 50. urteurrena ospatzen du aurten, eta horretarako hainbat jarduera antolatu dituzte urrian zehar.

Urriaren 9an hasiera emango diote ekintzaz josita hilabete honi Juanjo Urbizuren hitzaldiarekin. Juanjo Urbizu "Monterapia" liburuaren idazlea da eta mendia kirol hutsa baino harago, bizi kalitatea hobetzeko tresna ere badela azalduko du. Hitzaldiekin jarraituz, urriaren 16an, ostegunez, Alex Txikon alpinista lemoarra bertaratuko da Urduñara "Bizitza osoa mendiari lotuta" izeneko hitzaldiarekin. Azkenik, urriaren 25ean, Iñaki Ochoa de Olzaren inguruko dokumental bat proiektatuko da, "La voz de Iñaki". Horren ostean Annapurnan hildako alpinista euskaldun horren "SOS-Himalaya" fundazioa aurkeztuko da. Ekintza guztiak Urduñako kultur etxean egingo dira, arratsaldeko 19:30ean.



30 kilometro izango ditu Urduñako mendi martxa luzeak.

XI. Mendi martxa

Beste aldetik, urriaren 12an, XI. Urduñako mendi martxa egingo da. Ohikoa duten moduan, bi ibilbide egongo dira. Ibilbide luzea goizeko 8:00etan abiatuko da Foru Plazatik eta 30 kilometroko luzera izango du. 15 kilometroko ibilbide motza goizeko 10:00etan abiatuko da toki beretik. Inskripzioa 2 eurokoa izango da. 50. urteurreneko ospakizunak abenduan egiteko asmoa duten irteera sozial batekin amaituko dituzte. Irteera horretara joateko Bizkaiko mendi talde guztiei luzatuko diete gonbidapena eta ibilbide labur baten ostean bazkari bat antolatuko dute parte hartzaile guztiekin batera.

1964tik dabil martxan Txarlazo mendi taldea eta, urte batzuk geldirik egon ostean, 2005. urtetik aurrera sasoi betean doa aurrera euren ekintzetara geroz eta jende gehiago erakarriz.

Hilabetean behin irteera bat antolatzen dute eta urtean birritan gutxienez irteera bereziak antolatzen dituzte sagardotegi zein upategi batera klubeko kideen artean harremanak estutzeko asmoz. Horretaz gain, orain dela gutxi arte eskalada eskola txiki bat ere izan dute.

12.4 kilometroko luzera izango du lasterketak.

Arrankudiaga-Zolloko IV. Trail Lasterketa urriaren 12an, ibilbide "luze eta ederragoarekin"

ERREDAKZIOA I Ixone Mendibil

Urriaren 12an, 11:30etik aurrera, IV. Arrankudiaga-Zolloko Trail Lasterketa egingo da. Basahuntza Trail zirkuituaren barruko bigarren proba izango da. Izan ere, zirkuitua aste bat lehenago hasiko da, Arrigorriagan, gaueko probarekin.

Arrankudiaga-Zolloko Lasterketari dagokionez, oraingoan, aldaketa txikiak egin dira ibilbidean. "Apur bat luzatu eta politagoa izatea lortu da, paisaia izugarrietatik igaroz", antolatzaileen esanetan. Aurtengo lasterketak 12.40 kilometrotako luzera izango du eta malda metatua 1005 metrotakoa izango da.

Ibilbidea zirkularra izango da: Arrankudiagako plazan hasi eta amaituko da.

Izena emateko epea zabalik dago jada: www.sailkapenak.com web orrian edota arrankudiagakokrosa.blogspot.com bitartez. Prezioa 5€ da aurrez eta 10€ probaren egunean bertan izena emanez gero. Gehienez 300 dortsal banatuko dira. Haurrentzat doako proba egongo da, 10:30etik aurrera.

OROZKOKO MENDI IBILALDIA: 900 pertsona inguru elkartu dira Orozkoko mendietan Itxinape Mendi Taldeak prestatutako ibilaldia egiteko. Horretaz gain, azoka antolatu dute herriko erdigunean. Argazkia: Uxue Alberdi

_Herriko plaza

_agurrak

Joana eta Jorge

Zorionak!!!! Urriaren 4an ezkonduko zarete! Zorion handienak Luke ta Koldoren partez!!

Luke eta Koldo

Laura eta Endika

Disfrutatu egunez egun eta oso zoriontsuak izan bikote! Helburua ez baita helmuga, bidaia bera baizik.

Koadrila

Peru

Ongi etorri Peru, eta zorionak Nekane eta Andima, umetxo polit honen gurasoak izateagatik!

Etxekoak eta lagunak

Eneritz

Zaren bezalakoa izateagatik zorionak! Egun guztiak dira ezberdinak baina bereziak guk egiten ditugu.

Zure bixkia

_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.com helbidera urriaren 17a baino lehen.

_#sexgatik (:><:)

Opari bat egin nahi dut, libururik gomendatuko didazu? (Andere)

Irakurtzea aspergarria dela esaten duenak ez du bere libururik topatu. Aske izatea, egunero lortu ahal dugun askatasun txiki hori eskuratzean datza. Askatasun horretarako bidean liburuak gure lagunak dira. Hausnarketarako lagun edota etsai izan daitezke baina betiere gure barne hazkuntzaren parte. Bidelagun horietako batzuk topatzen lagunduko dizut: Miranda Grey idazlearen " Luna Roja" eta Carla Trepat-en "Lilith-en altxorra", hilerokoaren zikloei buruzkoak; edota Luis Lawis-en "Mareas Rojas" gizonen odol- errituaren inguruan; Pabla Pérez San Martinen "Ginecología natural"; Itziar Zigaren "Un zulo propio" eta "Sexual Herria", sexualitate eta generoak hausnartzeko; Herbert Marcuse-n "Eros y civilización", kapitalismoaren eragina sexualitatean; Virginie Despentes idazlearen "Teoría King Kong" bortxaketa prostituzioa eta pornografia feminismoaren ikuspegitik; Evelyn Reed-en "Sexo contra sexo clase contra clase"; Christiane Northrup-en "Cuerpo de mujer sabiduría de mujer"; Maider Garcia de Vicuña eta Iratxe Porrasen "Sexualitatean xirikatuz", sexualitateaz eta aniztasunaz... Adi! irakurtzeak ezjakintasuna larri kaltetzen du... Jakintasunerako lehenengo pausua ezjakintsuak garela jakitea da!

[Bidali zure galdera sexgatik@aiaraldea.com helbidera!] **Julene Onaindia Garcia**

_denborapasak



EZKER-ESKUIN

1. Gehienetan barazki gordinekin, eta batzuetan fruitu lehor, fruta eta bestelako janariekin prestatzen den janaria, gatz, olio eta ozpinarekin maneatu ohi dena. 2. Automobilak, autoak. 3. Alokairua. Zintzoa. 4. Militarren kolorea duzu; ez muga. Ugaztun karraskari, belarri-luze eta isats-motz, atzeko hankak aurrekoak baino luzeagoak, jateko ona. 5. Ugaztunen larruazalean hazten diren hari-formako luzakinak. Behialako piraten gustuko edari bizi. 6. Poesia mota. Adar. 7. Lehenengo pertsona. Toka, dio. Boroaren ikur kimikoa. 8. Daramat, baina bizkaitarren esango luketen moduan. Begira. 9. Ekintza okerra.

GOITIK-BEHERA

1. Ebakiedo zauri bat eko satu ondoren uzten duen seinale edo orbain. 2. Jesukristok hil aurretik pairatu zituen neke eta oinazeen segidak. 3. Zerbait hartu eta horren ordez beste zerbait emateko ekintza eta ondorioa. Musika nota, eskalan bigarrena. 4. Une honetan gerra zibila bizi duen errepublika arabiarra. Kitatzeke dago. 5. Hainbat apaiz eta erlijiosori ematen zaion trataera, izen-deituren ondoan ezartzen dena. Portuko nasak. 6. Berrogeita hamaika balio du zenbaki erromatarren arabera. Bigarren bokala. Pilotak lurraren edo hormaren kontra jotzean egiten duen jauzi edo punpa. 7. Lantzen diren lur-zati mugatuak. Kon-tsonantea. 8. Musika tresna. Musika nota, eskalan zazpigarrena. 9. Araknido bizkarroi. Oihanetan bizi den sugetzarra.

ERREZA

					8			
	3						4	
	6	2		1	9	3	8	7
	9		6	3	7	4		
						1		
		3		8		9		5
	4		7			8		
	7		1	9		2	6	

ZAILA

1	3				2	5	7	8
	5				1		3	
			7	5			8	9
	9	7	1			3		
				8	9			
4		6		7	5		9	3
	2		9					
					6	8	4	

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: **http://www.aiaraldea.com/users/denborapasak**

_horoskopoa

TARTALO
01.20 - 02.18

Prest? Begiak itxi, arnasteko erritmoan kontzentratu eta salto egin zalantzaz beteriko itsasoan! Beldurra ematen du baina erabakia hartuta duzula, ez al da eman beharreko hurrengo urratsa? Adrenalinak gora egitea ez al da zoragarria?

GALTZAGORRIAK
02.19-03.20

Osasun arazoak bilatzen dituzu nekea arrazoitzeko, baina burmuinak ondo funtzionatzeko eta gorputzak eskatzen diogun erritmoa jarraitzeko atseden dosi handia behar du, beraz, giharrak erlaxatu itzazu loaren fase sakonetan murgilduz.

HERENSUGE
03.21-04.20

Zure hitzak jan beharko zenituzke! Eguraldiaren arabera umore ezberdina duzula diozu ... gezurra! Egun eguzkitsuetan bero gehiegi, egun euritsuetan iluntasun gehiegi... bata zein bestea umore bera. Alaitu aurpegia!

LAMIA
04.21 - 05.20

Zerbait baieztatzen duzunean jakinaren gainean zaudenean egizu. Denek barre egingo dizute asmakizunak errealitate bihurtzen jarraitzen badituzu. Politagoa da gure irudimenean egiten dugun pelikula, saiatu oraina aldatzen!

BASAJAUN
05.21 - 06.20

Zu bai polita! Sartzen zaren toki bakoitzean zure agur alaiekin pozten dituzu inguruko kideak! Esaten ez badizute ere, lanera ez zoazen bakoitzean zure falta sumatzen dute, aura zoragarri hori hedatzeko ahalmena duzu gero, zorionak!

BASANDERE
06.21 - 07.20

Mozorrek ez dute laguntzen, inguruko horiei ez utzi zure xarma itzaltzen. Ausarta izan, kendu maskara hori, ezagutu eta maite ezazu zure burua, zaren bezalakoa zarelako maite ez zaituztenak zure bizitzatik kanporatzeko garaia da!

GAUEKOAK
07.21 - 08.21

Tristura zure buruan dago. Tristuraren kalteak zuk eragiten dituzu. Gelditu itzazu deabru horren pentsamendu negatiboak begiak ondo zabalduz eta eguneroko jardueretan burubelarri ibiliz. Barreneko izaki gaizto hori geldiarazi irri erraldoi batekin!

JENTILAK
08.22 - 09.22

Eguneroko ohikeria gelditzeko beharrean zaude. Zerbait berria egiteko nahia piztu zaizu eta lan horretan lagunduko zaituena ere badaukazu, zergatik ez deitu eta erakargarria den ekintzaren bat proposatu? hura ere abentura berrien beharrean dago eta!

AKERBELTZ
09.23 - 10.22

Kritikak gustuko dituzu. Guztien inguruan hitz egiteko daukazun ohitura txar hori aldatu eta autokritikak egiten ikasi ezazu. Izan ere, besteek bakarrik ikusten dituzte gure akatsak; saia gaitezen euren aholkuei men egiten.

MARI
10.23 - 11.22

Aizu! Ondo dago laguntza eskatzea, baina ez izan lotsagabea! Laguntza eskatzea betebehar bihurtu duzu. Zer uste duzu? Gainontzeko gizakiak ikasiak jaioak direla? Gauzak ez dira berez egiten, gogoa da oztopoak arintzen dituena!

ZIRIPOT
11.23 - 12.20

Alferra baino alferragoa zarela diozu. Eta alferkeria horren arrazoia zure ezjakintasuna dela aitortzen duzu. Alferra da konformatzen ikasten duena, barrenean daraman ahalmena aprobetxatzen ez dakiena, adimena geldiarazten duena.

SUGAAR
12.20 - 01.19

Fakturak birpasatzeko daukazun ohitura horrekin jarraitu. Gastu guztiak ikusteak apaltzen bazaitu ere, zure bizimoduaren prezioa ezagutu behar duzu eta...batek daki! Fakturek ere sorpresak dakartzate hutsen bat aurkituz gero, erne ibili!

_irakurlearen txokoa

_agenda

10.09 OSTEGUNA

18:00 LAUDIO
HITZALDIA
Kontsumitzen duzu ala kontsumitzen zara?
Zubiko Etxea

10.10 OSTIRALA

17:00 URDUÑA
IKASTAROA
Dantza ikastaro mistoa
Gaztetxea

18:30 LAUDIO
HITZALDIA
Emakumeentzako literatura
Kultur Etxea

20:00 AMURRIO
ZINEMA
Sua
Gaztetxea

20:30 TERTANGA
KONTZERTUA
Clöverwind
Eskola zaharra

22:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Erio, 30.06, ASSM
Gaztetxea

10.11 LARUNBATA

09:30 URDUÑA
AUZOLANA
Anfibiontzako urmaela
La Paul

09:45 AMURRIO
ASTEBURUKO TXANGOA
Baranbiora irteera
Araba Kalea

10:30 LAUDIO
HEZIKETA
Magalean
Kultur Etxea

17:30 LAUDIO
UMEENTZAKO AISIALDIA
Sorgin Zapatuak
Kultur Etxea

EUROPAR ONDAREAREN JARDUNALDIAK

10.12 IGANDEA

09:30 **Artzainen eta ikazkinen etxeak ezagutzeko txangoa. Orozkoko Museotik abiatuko da**

10.19 IGANDEA

10:30 **Jentilen zuloa ezagutzeko txangoa. Orozkoko Museotik abiatuko da**

10.26 LARUNBATA

11:00 **Urduña, historia bizi den hiria**

TXARLAZOREN 50. URTEMUGA JARDUNALDIAK

10.09 OSTEGUNA

19:30 **"Monterapia" liburuaren aurkezpena**
Kultur Etxea

10.12 IGANDEA

08:00 **XI. Mendi ibilaldia**
Foru Plaza

10.16 OSTEGUNA

19:30 **Alex Txikon: bizitza bat mendian hitzaldia**
Kultur Etxea

10.25 OSTEGUNA

19:30 **Dokumentala: "La voz de Iñaki"**
Kultur Etxea

19:30 LAUDIO
DESFILEA
Laudio Moda
Aldai Plaza

10.12 IGANDEA

11:30 ARRANKUDIAGA
LASTERKETA
III. Trail lasterketa
Kultur Etxea

10.13 ASTELEHENA

09:00 AMURRIO
HITZALDIA
Smart City
Amurrio Bidean

10.16 OSTEGUNA

19:00 LAUDIO
HITZALDIA
Emakumeen partaidetza, Kolonbiako bake prozesua
Erabilera anitzeko gela

10.17 OSTIRALA

18:00 LAUDIO
ANTZERKIA
Dos mujeres cuentan
LHUI

18:30 ARRANKUDIAGA
DOKUMENTALA
Gazta zati bat
Gizarte Etxea

19:00 LUIAONDO
EUSKARA
Berbajai
Gizarte Etxea

10.18 LARUNBATA

10:30 OROZKO
GASTRONOMIA
Gorbeia jan jan
Orozkoko Museoa

ANTZERKI AMATEURRA

AIMARA ANTZERKI TALDEARES ESKUTIK

10.11 OSTIRALA

20:00 **Cómo decirle que no la amo pero la quiero**
Amurrio Antzokia

10.18 LARUNBATA

20:00 **Guernica 1913**
Amurrio Antzokia

10.25 LARUNBATA

20:00 **Torito Bravo**
Amurrio Antzokia

11.01 LARUNBATA

20:00 **Yo soy la revolución**
Amurrio Antzokia

19:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Montse Perez, Mariano Mangas eta Jose Salinas
Lanbide Heziketa Eskola

10.19 IGANDEA

12:30 ARRANKUDIAGA
Erabakitzeko eskubidearen aldeko jaia Herri bazkaria, umeentzako jokoak...

ZINEMA

10.11 LARUNBATA

"#CHEF"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00ean (3€)

10.12 IGANDEA

"AVIONES: EQUIPO DE RESCATE"
AMURRIO ANTZOKIA
17:30ean (3,60€)

"EL NIÑO"
AMURRIOKO ANTZOKIA
19:30ean (4.80€)

10.13 ASTELEHENA

"EL NIÑO"
AMURRIOKO ANTZOKIA
20:00etan (3,60€)

10.18 LARUNBATA

"UNA FAMILIA DE TOKIO"
LAUDIOKO LHUI
17:30ean eta 20:00etan (2 €)

10.19 IGANDEA

"CÓMO ENTRENAR A TU DRAGÓN 2"
AMURRIOKO ANTZOKIA
17:30ean (3,60€)

"EL AMANECER DEL PLANETA DE LOS SIMIOS"
AMURRIOKO ANTZOKIA
17:30ean (4,80€)

10.20 ASTELEHENA

"EL AMANECER DEL PLANETA DE LOS SIMIOS"
AMURRIOKO ANTZOKIA

Jimmy jazz gasteiz

URR 18 // VOMITO
+ Manolo Kabezabolo y los que no dan pie con bolo
20:30 (8 / 12 €)

URR 25 // LETZ ZEP
Tributo a Led Zeppelin
21:00 (20 / 25 €)

URR 31 // ALBERT PLA & Diego Cortés
21:30 (15 / 18 €)

AZA 1 // NIKKI HILL
21:30 (12 / 15 €)

AZA 6 // MISHIMA
21:00 (12 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre higiezinen agentzia

BASERRIA SALGAI MURGAN
Prezioa: 190.000 €
360 m², beheko eta 1º solairuaz osatuta dago, 11.000 m²-ko lursaila, eraberritzeko.
Erref.: 167.519



PISUA SALGAI ARTZINIEGAN
Prezioa: 90.000 €
60 m², 2 logela, bainugela, eraberritutako eta altzariz hornitutako sukaldea, berogailua, kanpoaldera.
Erref.: 167.518

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 190.000 €
82 m², 2 logela, bainugela, kanpoaldera, berogailua, igogailua, sartzeko prest.
Erref.: 167.516

PISUA SALGAI OROZKON
Prezioa: 247.000 €
85 m², 3 logela, 2 bainugela, balkoia, trastelekua, igogailua, garajea, kanpoaldera, eraikuntza berria.
Erref.: 167.498

PISUA SALGAI URDUÑAN
Prezioa: 110.000 €
56 m², 2 logela, bainugela, kanpoaldera eta eguzkitsua, eraberritua, balkoia, trastelekua, negoziagarria.
Erref.: 167.248

PISUA SALGAI AMURRION
Prezioa: 297.500 €
90 m², 3 logela, bainugela, balkoia, trastelekua, garajea, bizitzera sartzeko prest, herriguenean.
Erref.: 149.873

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 227.000 €
95 m², 2 logela, 2 bainugela, igogailua, trastelekua, terraza, garajea, kanpoaldera, eraikuntza berria, negoziagarria.
Erref.: 167.446

ETXEA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: 310.000 €
116 m², 2 logela, 2 bainugela, terraza, garajea, barbakoa, 250 m²-ko loralegia, bizitzera sartzeko prest.
Erref.: 167.469

www.etxaurre.com
Tlfnoa: 94 672 85 50

_ezin galdu

VIII. JAIALDI FLAMENKOA: Andaluzia eta Extremadurako Etxeek flamenko kontzertua antolatu dute urriaren 18an. Artistarik garrantzitsuena Montse Perez abeslaria izango da.

ONDAREAREN JARDUNALDIAK: Urduña eta Orozkoko ondarea ezagutzera emateko ekimenak antolatu dira aurten ere. Artzaien bizimodua, Jentilzulora eta Urduña hirira bisita gidatuak... Informazioa 3. orrialdean. (Arg./euskonews)

_kontra

aiaraldea

Floren Usia

Guiomar Puerta Garcia

“Goenkaleren 21.denboraldia da eta nik 21 urte ditut. Sinestezina da hemen egotea! ”

GUIOMAR PUERTA GARCIA (Amurrio, 1992) ETB1eko Goenkale telesailean hasi da aktore. Zaletasuna, ordea, txikitatik datorkio: “Txikitan noizean behin lo plantak egiten nituen amak edo aitak ohera besoetan eramateko”.

ERREDAKZIOA I Izar Mendiguren Cosgaya

Goenkalen Taniaren azalean jardungo zara. Pozik al zaude?

Bai, izugarri pozik nago. Ibilbide luzea duen serie batean parte hartzea ohore bat da niretzat eta, gainera, ikasteko abagune ezin hobea. Goenkaleren 21. denboraldia da eta nik 21 urte ditut, sinestezina da hemen egotea! Eman didaten aukerari ahal dudan probetxu guztia aterako diot.

Oholtza ala pantaila, zer duzu nahiago? Zeintzuk dira bakoitzaren alde on eta txarrak?

Orain arte egin ditudan lan guztiak ikus-entzunezkoak dira, oholtza probatzeko gogoak ditut, baina horretarako prestatu beharra daukat.

Zinemaren paradisua oraindik urruti al dago?

Paradisua begiztatzen ari naiz! Laster pelikula batean parte hartuko dut. Paper txikia da, baina oraindik ezin dut sinetsi hala izango denik...

Zure ametsek errealitatetik ala fikziotik, nondik dute gehiago?

Lortezinak zirela uste nuen, baina bete egiten hasi dira, errealitate bihurtzen... Ameslari handia naiz betidanik, beraz amets pila bat ditut eta horietako asko urruti daude oraindik, baina bide egokitik nabilela uste dut.

Txikitan eskolara ez joateko tripako mina antzezten zuen horietakoa zinen?

Ez, ume oso zintzoa nintzen. Baina gogoratzen dut noizean behin, gaua zenean, egongelan lo plantak egiten nituela, amak edo aitak besoetan ohera eramateko.

Goenkale sekula bukatzen ez den telesaila delako aukeratu al duzu?

Haiek aukeratu naute ni! Hala ere, Goenkalek hainbeste urte badirau, arrakastaren sekretuarekin eman dutelako da, bere istorio eta pertsonaiekin belaunaldi desberdinetako publikoari gustatzea lortu dute. Eta hori goraipatzekoa da.

Nolakoa da grabaketa egun bat?

Asko zaintzen da kapitulu bakoitza, grabaketaren erritmoa oso arina izanda ere, askotan goizeko 6:45ean hasten gara... pentsa! Sekuentzia bakoitza grabatu baino lehen, zuzendariarekin entsaiatu egiten dira. Ez dago galtzeko denborarik, baina hala ere eszena guztiak mimo handiz lantzen dira. Aktoreen lana asko zaintzen da Goenkalen.

Zer aholkatuko zenioke aktore izan nahi duenari?

Bere burua prestatzea, ahal duen profesional onenarekin ikastea eta gogor borrokatzea. Ez da lanbide erreza, etengabe kastingak egin behar dira. Hasieran oso gogorra izan daiteke, baina ez etsi, zure aukera heldu egingo da.

Ainhoa
Comas
Bertsolaria

_Helmugari so

Udazkena

Aste batzuk pasa dira egunsentia buseko leihotik ikusten berriro hasi nintzenetik, udazkena bere hosto lehor, kafesne bero eta igande arratsalde hotz usainarekin, gure zain kale kantoian zegoen seinale.

Udan izara moduan balio digun azal nordikoa sartu eta sandaliak botengatik aldatu dituzunerako, urriak bere egin gaitu. Eta ondo sartu ere, pentsatzen hasita, txikleak bailiran luzatu genituen oporretako azken egun horiek aurreko bizitzaren batekoak ematen dutela.

Denboraren aurkako borrokarik latzenak ere ezin du erloju orratzen ibilbidea gelditu, eta zitara puntual iritsi da, urtero bezala, kurtsoa, zapaldu bezain beste babesten gaituen errutinarekin. Agurtu beharko, bada, zeruko urdina, antza aurten horren goiz joateko asmorik ez badauka ere, eta asmatu gabeko istorioak bezala hasten ziren egunak.

Eman diezaiogun ongietorria, beraz, datorrenari, zeren hark daki zein abentura biziko ditugun euritako azpian, eta euripean bizi ezin diren ametsen ilusioa hurrengo udarako utz daitekeen bezala, desilusioen itzala udazkeneko euriak eraman dezala.